

B

BARREN



Mendia bi erroberatan

Mendiko bizikleten zentroa Mintxetan

Gabi jateak



Jaietako menua

APERITIBOAK

- Chip begetalak ali-oliarekin.

LEHENENGO PLATERA (aukeratzeko)

- Foie-a, bioleta lore-ostoen konfiturarekin eta lima hautsarekin.
- Bakailao entsalada epela, piper gorriekin.
- Itsas trikua

BIGARREN PLATERA (aukeratzeko)

- Urraburua (dorada) plantxan, onddoen ozpin-oliotan.
- Legatza txirlekin saltsa berdean, Parmesano-Reggiano erara.
- Txahal-azpizuna, idiazabal erara.
- Erbi gisatua

POSTREA (aukeratzeko)

- Sasoiko frutak, yogur aparrarekin eta mango kurruskariarekin.
- Etxeko postreen aukeraketa

PREZIOA: 35 euro + BEZ (edariak ez daude barne).

**Ez galdu San Bartolomeetarako
prestatu dugun menua!**

Nafarroa enparantza • Tel.: 618 259 339



Badatoz San Bartolomeak !!!

Publizitatea jartzeko: 943 74 37 04

Gotzon Garate maisu handiari, esker ona

Akolito nintzanean ezagutu nuen Gotzon, eta lehendabiziko meza eman zuenean San Bartolome parrokia ederrean han nintzen. Gaztetan Deustuko unibertsitatera historia ikastera joan nintzanean, haren adiskide egin nintzen. 1972-73ko ikasturte hasiera hartan hurbildu nintzaion Gotzoni eta agurtu nuen. Harrera oso ona, alaia eta hurbila egin zidala gogoratzen dut, hogeita hamasei urte igaro arren. Izandako elkarrizketaren bukaeran Filosofiaren eta Letren fakultateko bere bulegoko giltza eman zidan, erabil nezala esanez, berak ez omen zuen-eta haren beharrik. Horrela, ikasle soila nintzela, irakasle-bulegoa izan nuen historiako lizentziatura egin arte, elgoibartar jesuita katedradunak utzita eskuzabaltasunez.

Historiaren filosofia irakasgaiaren irakasle izan nuen hurrengo ikasturtean eta modan zeuden marxismora eta maoismora hurbiltzeko aukera paregabea izan nuen Gotzonekin. Berotasun handiz, gogo biziz, bihotza eta anima jarrita eman ohi zituen klaseak. Otsailean egin genuen azterketa, euskaraz egiteko aukera eman zidan, neuk horrelaxe eskatuta. Ikasle nintzeneko azterketa hau euskaraz bakarra izan zen, gure belaunaldikoei irakaskuntza ofizial osoa erdaraz izan genuen-eta.

Deustuko unibertsitatean martxan zegoen Euskal kultur mintegiko partaide eta sustatzaile ere zen Gotzon beste zenbait irakasle zein ikasle euskaltzalerekin batera: Adrian Zelaia, Roman Garate, Alfontso Irigoien, Goio Monreal, Patxi Goenaga,

Karmele Rotaetxe, Andolin Eguzkitza...

Azkenik, Gotzonek hitzaurrea idatzi zidan Euskal Jaien ospakizunen barruan argitaratu nuen libururako (Elgoibar, modernitatearen atarian (1870-1910) Euskal Jaiak (1907). Hau gutxi balitz, liburuaren aurkezpenaren egunean ma-haian egon zen Alfredo Etxeberria alkatearekin, Anjel Ugartebururekin eta nirekin, egun batzuk lehenago ebakuntza egin zioten arren. Bene-benetan estimatzekoa.



Besarkada handia eta esker ona bidaltzen dizkiot hitz xume hauen bidez Gotzon maisu handiari eta adiskideari.

Pello Arrieta

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Besarkada handia eta esker ona bidaltzen dizkiot
Gotzon maisu handiari eta adiskideari”**

**BIDALI ZURE OPORRETAKO ERRETRATUAK
ETA IRAILEAN ARGITARATUKO DITUGU!**



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



UDALAK 2007 - 2011 LEGEALDI PLANA ONARTU DU

ZEREGINEN MAPA

Legealdia 2011n amaitu arte, zereginak definituta laga ditu Elgoibarko Udalak. Izan ere, Legealdi Plana onartu zuen plenoak ekainaren 26an. Hurrengo urteetarako herriko proiekturik garrantzitsuenak jaso ditu plan horrek. Dena dela, oraindik zehaztu gabe daude ildoak edo jarduerak, aurrekonturik eta konkretiorik gabe. Hori guztia egin ahal izateko, urteko gestio planetan sartzen joan beharko dira proiektuok. Era berean, plana urtero berrikusiko dute. Plangintza osoa irakurtzeko, www.elgoibarren.net webgunean.

Oier Narbaiza

Udalak hogeit hamar proiektu eta 66 jarduerara gauzatzeko konpromezua hartu du Legealdi Planarekin, 2011ra arte. Hoberantz egiteko izpirituarekin jaio dela nabarmendu du Gobernu Taldeak: elgoibartarron bizi kalitatea, enpresen egoera eta herriaren itxura bera hobetzeko.

Herritarrengan kezka eragiten duten gaiak jaso egon ditu plangintzak 30 orrialdetan, hauek esaterako: etxebizitza, apartakalekuak, kultura-aniztasuna, enplegua, azpiegiturak, haurtzaindegi zerbitzua, tratu txarrak, garraio publikoa, gazteen lokalak, kirol eta aisirako guneak, euskara...

Bost ardatz nagusiren inguruan egin dituzte hogeit hamar proiektuok: pertsonak (arlotz soziala), enpresa eta lan dinamizazioa, hiritgintza-habitata, eraginkortasuna (kudeaketa) eta Udalaren erantzukizuna. Jarraian, proiektu guztiak eta jardueretako batzuk jaso ditugu.

PERTSONAK

PROIEKTUAK

MENDEKOTASUNAREN ARRETA ETA PREBENTZIOA

BERDINTASUNA ETA LANEKO ETA ETXEKO ZEREGINAK BATERATZEA SUSTATZEA

AISIALDI OSASUNGARRIA ETA BIZTANLERIA GAZTEAREN PARTAIDETZA

PERTSONA ETORKINEN ABEGIA ETA ARRETA

EGOERA BABESGABEKO PERTSONEN GIZARTE-KOHESIOA ETA GIZARTERATZEA

ZEREGINETAKO BATZUK:

- Adineko pertsonen arretarako eskualdeko zentroa sortzea. Pilar ikastetxearen eraikinak, birmoldatuta, Deba, Mutriku, Elgoibar eta Mendaroko nagusien premiei emango lieke erantzuna.
- Haurtzaindegi zerbitzuaren eskaintza zabaltzea eta hobetzea: beste haurtzaindegi publiko bat irekitzeko bideragarritasuna analizatzeko proposamena egiten du plangintzak.
- Gazteen lokalak aztertzea eta antolatzea, "gainerako biztanleekin bizikidetzara egokia sustatzeko".
- Eskolaz kanpoko jardueretarako laguntza ekonomikoak izango dira ume etorkinentzako eta eskasia ekonomikoak duten familietako haurrentzako.
- Gizarte zerbitzuen inguruko informazioa hobeto ezagutarazteko, katalogoa landuko dute.
- Tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeentzako, zerbitzu juridiko eta psikologikoen gastuak ordaintzeko laguntzak aurreikusten dira.



ENPRESA ETA LAN DINAMIZAZIOA

PROIEKTUAK

ERREMINTA-MAKINAREN HIRIBURUA

ELGOIBAR BERRITZEN

PRESTAKUNTZAREN HIRIA

ZEREGINETAKO BATZUK:

- Elgoibarko enpresek bertan jarraitu dezaten, ingurunean egoera hobetzeko jarduerak analizatzea eta garatzea proposatu dute.
- Industria, enplegua, merkataritza, etxebizitza eta garraioa elkartuko dituen Batzordea sortzea.
- Nekazaritza ekologikoa eta kalitatezkoa sustatzea. Produkzio hori merkaturatzeko ingurune aproposa ezagutzeko asmoa azaltzen da plangintzan. Nekazaritza ekologikoko azokak aipatzen dituzte.
- Enpresa berriak herrian kokatzeko espazioren bat egokitzea.

HIRIGINTZA-HABITATA

PROIEKTUAK

HIRI ESPAZIO ERAKARGARRIA ETA KALITATEKOA

MERKATARITZA-GUNEA

ONDAREA BALIOZTATZEA ETA ERAKARGARRI TURISTIKOA

BARNE ETA KANPO IRISGARRITASUNA

ETXEBIZITZA ESKURATZEA SUSTATZEA

KIROLAREN ETA KULTURAREN HIRIA

EKINTZAK AUZOETAN

INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA

ZEREGINETAKO BATZUK:

- Herrigunea berritzea. Horrekin batera, arkitektura-ondareari eusteko eta azpiegiturak hobetzeko jarrera azaltzen da.
- Erdigune eta auzoen arteko oztopo naturalak gainditu eta mugikortasuna hobetzea.
- Merkataritza jarduerari erraztasunak emateko, azpiegiturak egokitzea. Era berean, Merkaturak kanpotarrak erakartzeko ahalmena izanik, instalazioak eta kudeatzeko modua egokitu beharra agertzen da.
- Eskaintza turistikoa sustatu eta egituratzeko premia dago, plangintzaren arabera: erreminta-makinaren museo horretarako lagungarri izan daiteke.
- Aparkalekuaren arazoari irtenbideren bat eman behar zaiola dio plangintzak: "Aparkekuen eskaintza areagotzean eta aparkalekuak eraikitzeke espazio potentzialen analisisan aurrerapenak egitea proposatu da".
- Eibarrera tren hamabost minututik behera aurreikusten du.
- Madala, Santa Ana eta Ubitarte Burun Babes Ofizialeko Etxebizitzak azaltzen dira. Horrez gain, etxebizitza hutsak eta alokairuzkoak mobilizatu beharra agertzen du. Bestalde, lokalak eta behe solairuak etxebizitza bihurtzeko udal ordenantza onartu behar dela.
- Mintxeta handitzea aurreikusi dute eta natur inguruneetan atsedenlekuak sortzea.
- Haurrentzako tamaina ertaineko jolaslekuak garatzea.
- Auzoetan jarduera batzuk ere aurreikusi ditu. Esaterako: lau baserri auzotan edateko ura banatzea, zementuzko bideak asfaltatzea, Idotorbe-San Pedron elkartea egitea, Altxolako zeharbidea egokitzea edo Sigman eskailera mekanikoak eraikitzea.
- Ingurumenaren iraunkortasunarekin lotutako ekonomia jarduerak sustatzea.

ERAGINKORTASUNA

PROIEKTUAK

HIRITARREN ARRETA ETA PARTAIDETZA

UDAL-KUDEAKETA ERAGINKORRA

EUSKARAREN ERABILERA

ZEREGINETAKO BATZUK:

- Herritarren partaidetza sustatzeko baliabideak martxan jartzea aurreikusten da. Horrez gain, Udal zerbitzuek herritarren premietara begira egon beharko dute.
- Udal kudeaketa hobetu beharra dago, planaren arabera. Horrez gain, udal proiektuak finantzatzeko moduak indartu egin beharko dira eta diru-laguntzak hobeto aztertu.
- Euskararen aldeko ekimenak sustatu nahi ditu Udalak. Jarduera batzuk aipatzen ditu, esate baterako: ahoko ondarea batu eta zabaltzea, haur eta gazteentzako plan integrala eta Udaleko egoera soziolinguistikoa aztertzea.

ERANTZUKIZUNA

PROIEKTUAK

UDALAREN GIZARTE ERANTZUKIZUNA



ADOSTASUN ZABALA, BAINA EZ ERABATEKOA

Udal Plenoak ekainaren 26an onartu zuen 2007-2011 Legealdi Plana. EAJ-PNV, PSE-EE, EA eta PP alderdiek baiezko botoa eman zuten. Ezker Batua/Aralar koalizioak, berriz, kontrakoa. EAE-ANV ere oso kritikoa azaldu da.

Lortutako adostasunarekin pozik agertu da EAJ-PNV eta EA-ren Gobernu Taldea. "Alderdiak bat etorri dira Elgoibarko herriaren gizarte eta ekonomia garapenerako proiekturik garrantzitsuenak identifikatzeko orduan", alkatetzeko prentsa oharraren arabera. Plangintza egiteko, Elgoibarko alderdi politikoeak zuzenean parte hartu duela nabarmendu du, EAE-ANV barne, legez kanpo egon arren.

Alfredo Etxeberria alkateak eskerrak eman dizkie alderdiei prozesuan parte hartzeagatik. Bere iritziz, legealdia planifikatuta gelditu da. Plangintzak emaitza onak ekartzen baditu, etorkizunean ere egin beharko dela uste du.

PSE-EEK plangintzarekin bat egin izana garrantzitsua da, alkaterean iritziz. Izan ere, erabateko babesera erakutsi dio, nahiz eta hu-



tsune bat ikusi: merkadilloaren gaia ez da azaltzen. Hala ere, ekarpenak egiteko prest azaldu da PSE-EEko Ovidio Campello.

PP alderdiko Javier Nuñez zinegotziak aldeko botoa eman zuen Plenoan, "oposizio eraikitzailea" egitearren. "Asmo onak eta hitz politikak" baino ez direla uste du. Era berean, Gobernu Taldearen jarrera gogor kritikatu du euren proposamenak kontuan ez hartzeagatik.

EAE-ANVK KRITIKATU DU BERE HERRI PROGRAMA KOPIATU DUTELA

Legealdi Planari ekarpenak egin dizkio Ezker Abertzaleak, baina oso jarrera kritikoa erakutsi du. EAE-ANV ez du ulertzen Udalak zelan gastatu dituen 20.000 euro lkei enpresarekin, plangintza egiteko. Azken batean, jarduera asko EAE-ANVren herri programari kopiatutakoak direla dio, esate baterako: San Lazaro egoitza eta eguneko zentruaren gaia; etxegintzaren erritmoari buruzko hausnarketa; ekipamendu behararen gaia, ingurugiroaren babesarena edo herriko merkataritza indartzearena.

"Gure herriak dituen behar eta gabeziak ikusteko ez dago inongo enpresaren beharrik, kalean eta herritarrekin dagoen edonork hainbeste badaki", Ezker Abertzalearen arabera. "Guk urte asko daramatzagu zarata ateratzen, baina ez digute kasurik egin nahi izan. Enpresa horri gutxienez entzungo al diote?", galdetu du.

EAE-ANVko Iñaki Odriozolak ez du sinisten Plangintzan agertzen diren jarduera asko egingo direnik.



EB/ARALAR: "ERDIA ERE EZ DUTE MARTXAN JARRIKO"



Ezker Batua/Aralar koalizioari ez zaio gustatu zelan egin duten plangintza. Bileran batzuk lan orduetan egin zirela eta eurak ez zutela joaterik izan kritikatu du Unai Zulaika zinegotziak. "Eurei interesatzen zaizkien proposamenak sartu dituzte, eta inkomodoak kendu". Horrez gain, proiektuak ez direla konkretatzen uste du. "Intentzio deklarazioa da", bere ustez. Bestalde, Plangintzak Eudelen gobernagarritasun hitzarmenarekin bat egiten du eta EB/Aralar koalizioa erabat kontra dago.

Legealdian koalizioak proposatutako 30 proiektu onartu badituzte ere, bat bere ere oraindik ez da martxan jarri legealdian, Zulaikaren esanetan. Gobernu Taldeari leporatu dio argi ez izatea gai askori nola heldu. "Seguru gaude erdia ere ez dutela martxan jarriko. Azkenean, inkonkrezioa da ildo nagusia", esan du.

Jarduera konkretu batzuk gogor kritikatu ditu Zulaikak: herri partaidetzaren ingurukoa, gazteen aisialdiari buruzkoa, erresidentziaren beharra ez agertzea eta Ongizate Saileko "inkonkrezioak".

Azken batean, plana "saltzeko gauza bat da", uste du. "Ez dugu esaten hau txarra denik. Ez da behar bezain ona", Zulaikaren esanetan.



San Lorenzo errekan zabor kontenedore bat dago:

“Ermuaranbide kalean, San Lorenzo errekan, zabor kontenedore bat dago aspalditik. Hamar egun baino gehiago pasatu dira dagoeneko, lehenengo aldiz ikusi nuenetik, eta oraindik bertan jarraitzen du. Norbaitek aterako zuela uste nuen, baina egunak joan eta egunak etorri, zabor kontenedorea leku berean ikusten dut. Ez dakit noren lana den horrelako gauzak egitea, baina dagokionak, mesedez, lehen bailehen atera dezala zabor kontendore hori errekatik. Mila esker”.



Santa Ana kalean jarri dituzten zabor kontenedoreak oso leku txarrean daude:

“Zebrabide gainean jarri dituzte zabor kontenedoreak Santa Ana kalean, eta gainera, ikusmena murrizten dute. Auto gidariei eta baita txirrindulariei ere, traba handia egiten diete. Aste honetan bertan, istripua izan dut. Bizikletan nihoala, gizon bat bidea gurutzatzen hasi zen. Ez nuen ikusi, eta harrapatu egin nuen. Kolpea handia izan zen. Gizonezkoa konorterik gabe geratu zen lurrian botata, eta neuk ere min hartu nuen. Hala ere, okerragoa izan zitekeen, beraz, gaitzerdi. Zabor kontenedoreak lekuz aldatzeko eskatu nahi diot Udalari, bestela zeozer larriagoa gertatuko da egunen batean”.

Mintxetako igerilekuetan aurten ez dute musikarik jartzen:

“Laz musika jartzen zuten Mintxetako aire libreko igerilekuetan, eta aurten kendu egin dute. Niri pena eman dit, gustura egoten nintzen eguzkia hartu eta musika entzuten. Jende askori entzun diot faltan botatzen duela, eta

asko eskatzea ez bada behintzat, eskertuko nuke musika jartzea. Bestalde, igerilekuetako aldagelak ez dira oso erosoak, izan ere, ez dago toaila lagatzeko lekurik ere. Mintxetako gunea oso ondo dago, baina oraindik badauka zer hobetu”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

II. URTEURRENA



2006ko uztailaren 20an hil zen *Iñaki Contreras de Castro*

*Ez agurrik,
ez adiorik,
gero arte bakarrik.*

Elgoibarko kuadrila



20. URTEURRENA



1988ko uztailaren 26ean hil zen, 19 urte zituela,

Jose Mari Boyer Gelde

ZURE FAMILIAK GOGOAN ZAITU





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Eskutitz honekin bi asmo bete nahi ditugu: hamabostaldian ateratako ondorioak publiko egin eta lagundu diguzuenoi eskerrak eman.

Bailaran daukagun eta dagokigun aberastasun bat da Praileaitz, bertan agertutakoak Europa (eta mundu) osoan bakarrak dira eta UNESCOk gizeariaren ondare izendatzeko aukera askorekin, gauzak ongi egiten baditugu. Horrek eskualdearen garapen kulturalan lagunduko du.

Halere, garapen kulturala barik, hemen gutxi batzuen mesederako garapen (edo interes) ekonomikoa da nagusi. Ez dugu ulertzen, margoak agertu eta Aranzadik Diputazioan aurkeztu zuenean, koba babesteko neurririk ez hartzea. Ez dugu ulertzen koba babesteko erakunde pribatu batek denuntzia sartu beharra. Ez dugu ulertzen, kobak pitzadurak izan dituen arren, Eusko Jaurlaritzak nahikoa babestua dagoela esatea, edo Sheffield-eraino joatea hori esango duen norbaiten bila, gainontzeko guztiek kontrakoa diotenean.

Jean Clottes UNESCOko aholkulariaren esanetan, ezin da sinetsi koba babestuta dagoela, eta zartzate bat dagoen bakoitzean bertan dauden guztiak kobatik irten beharra izatea. Edo berak Eusko Jaurlaritzaren agindupean egindako txostena aurkeztu eta Jaurlaritzak hiru hilabete beranduago (oporren bezperetan) publiko egitea.

Munduan arkeologian aditu direnek, Aranzadikoeak, Praileaitzen lagu-

nak osatzen duten kultura munduko jendeak, SOS praileaitzekoek, herri mugimenduek, pisuzko hainbeste eragilek kobazuloa babestu behar dela diotenean entzungorrena egiteak kezka eragiten digu. Zer ezkutatzen ote dute guzti honen atzean?

Halere, positiboak izateko arrazoirik ez zaigu falta.

Elgoibarren egin dugun lana ez da makala izan. Zuen laguntza gabe hau dena antolatzea ez zen posible izango, beraz, ezin lagundu diguzuen guztioi eskerrak eman gabe geratu.

Jendearen harrera polita izan da, batez ere, indusketa lanetan dihardutenen hitzaldian.

Hasteko, mila esker zuen borondatez egitaraua osatzen lagundu diguzuen guztioi, Mutriku Natur Taldeari, Xabier Peñalver eta Sonia San Jose arkeologoei, Klowntuz-i, MUFOMIri (bereziki Jabi Bargas-i), Venusen emanaldian parte hartu zenutenei, luntx begetarianoa egiten aritu zineten sukaldariari, Txopi bakarlariari eta egun batean edo bestean antolatzen lagundu diguzuenoi. Horiez gain, komunikabideei, eduki duten harreragatik, eta bereziki BARREni, kultura eta gaztedia sailari egun hauetan gure nerbioekin hor inguruan bueltaka agoantatu gaituzuelako.

Eta nola ez, gurekin batera hamabostaldi honetan disfrutatuta, parte hartu eta ikasi duzuen guztiei, hitzaldietan, erakusketa bisitatu duzuen edo egin diren kanpo ekintzetan. Ziur norbaitekin ahaztu garela eta horri ere eskerrik beroenak.

Hurrengoan gustatuko litzaiguke Udalak kartelak ez kentzea, ez baitira merkeak.

Praileaitzen aldeko
Mendaro eta Elgoibartarrak ☺

OHARRA

OPORRAK HARTU DITUGU

Iritsi dira oporrak BARREnera! Hurrengo alea San Bartolome jailetan jasoko duzue; **abuztuaren 23an**. Ondo pasa!

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Ainara Sedano


Zorionak, Noe, hau argitaratu orduko zure urte eguna justuan pasata egongo da eta. 30 urte, neska-

to!!!! Eta nire amak dioen bezala, “adin honekin jada umeak eukitzen pentsatzen hasi beharko dezu, zure lagun gehienek badituzte-eta!”. Jaja! Gauzen ordena badakizu zein den: ikasketak amaitu, mutila topatu, lanean hasi, dirua aurreztu, pisua erosi, umeak eduki eta jubilazio plan bat kotratatu. Baina ni momentuz ederkiegi bizi naiz, askatasun guztiarekin gura dudana egiteko, eta ez ordea hori kenduko didaten “gizarte-ohitura” horien menpe. Oraindik ez behintzat. Momentuz, lagunen seme-alabekin nahiago dut izeba jator hura izatea; tarteka pizza eta Coca-cola emango diena. Edo beraien amak kokoteraino daudenean, umeak hartu eta gurasoei deskantsu pixka bat emango diena, bere umeak pixka batean urrunduz. Baina negarez hasten direnean...doazela euren amarekin!!!!

“Desegin ezin daitezkeen gauzen beldur naiz”

Ba al dakizu, Noe, zeren beldur naizen ni? Desegin ezin daitezkeen gauzen beldur. Behin aurrera pausoa emanda, atzera egiten lagatzen ez dizutenak; hanka sartu eta konturatuz gero, hori zuzentzeko aukerarik ematen ez dutenen beldur. Eta nik dakidala, behin mundura etorrira...ume txikiak ezin dira “tirriñetik” tripara bueltatu, eta txikitu-txikitu-txikitu desagertu arte!

Badauka oraindik, nik 40 urte bete arte, ama izatearen krisiak ni harrapatzeko aukera. Baina, momentuz, zertarako jarraitu jorratutako bidea? Jende guztia doan tokira besterik ez nau eramango eta...Eta zu, Noe, norantza zoaz?



Noemi Otegi



Zuk eta nik, argi utzi dugu bai hasieratik, zozoak beleari atalean idazteko modukoak gizona, neska!! 30 urte! Neskatilla kokkor bat nintzenez, 30 urtekoek sekulako andre heldu itxura izaten zuten. Nik ere itxura bera emango al diet oraingo gaztetxoei?

Ene!! Bai, ziur!!! Zahartzen ari omen gara, nahiz eta gazte sentitzen garen!

“Ezkundu nintzen eta orain haurrei buruz galdetzen dute!”

Ondo diozun bezala, badago bai ez idatzizko arau bat, bizitzan zehar jarraitu beharreko pausoei buruzkoa!! Ez soilik jarraitu beharreko pausoei buruzkoa, baita pausu horien ordenari buruzkoa ere!

Eta, ondorioz, etengabe errepikatzen zaizkigun galderak, ezta? Zenbat aldiz galdetu dizute ia ezkonduko zaren? Makina bat aldiz ezta? Tira ba, ni ezkondu nintzen eta orain etengabe galdera berri didate: Orain haurrei buruz galdetzen dute! Bueno, eta soineko zabalaren bat jarri ezker zorionen bat ere jaso izan dut! Zer egingo diogu ba, horrelakoa omen da bizitza!! Egia esaten badizut, bost ilobatxo ditut, bostak ere mundialak, adin desberdinetakoak, 11 urtetik hasi eta 4 hilabetera arte, jolastu, gozatu eta konturatzerako bere aita-amak jasotzen dituzte bueltan. Ilobak kontentzu eta izeba Mimi gehiago!! Gainera, zer arraio, zenbat ez idatzizko arau apurtu ditugu dagoeneko??

Tira ba, tarte batean behintzat beste hainbeste apurtzea eskatzen dit gorputzak, eta gero... gero, gerokoak!!



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Olasoko errotondan, Santa Ana kalean eta Madala inguruan egingo dituzten obrei buruzko erakusketa martxan da

Uztailaren 31ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxean

Datorren urtean Elgoibarren egingo diren hiru obrari buruzko nondik norakoak azaltzeko, erakusketa jarri du Udalak Kultur Etxean. Eguaztenean ireki zituen ateak, eta uztailaren 31ra arte egongo da ikusgai. Asteleheneetik barixakura (19:00-21:00) eta asteburuetan (12:00-14:00 eta 19:00-21:00).

Erakusketa partehartzailea

Olason, Santa Ana kalean eta Madala inguruan egingo diren lanei buruzko informazioa emateko, irudiak eta planoak erabiliko dituzte. Horrekin batera, hamar minutuko bideoa emango dute, gune horiek gaur egun nola dauden azaltzeko, eta ondoren nolakoak izango diren ikus-teko. Baina herritarrei informazioa emateaz gain, eurek ere parte hartu ahal izango dute obra horietan: Madalako parke berria jarri beharreko zoruaren gaineko iritzia emateko aukera izango dute Kultur Etxera gerturatzen diren herritarrek. Lau material jarri dituzte auke-



ran, eta jendeak bere iritzia eman ahal izango du.

2009a obren urtea

Hurrengoa obren urtea izango da. Udalak hiru obra gauzatu ditu: Olasoko errotonda, Santa Ana eta San Inazio kaleak berri eta oinezkoentzako egokituko ditu, eta azkenik, Madala ingurunea itxuraldatuko dute. Hiru obra

horiek hilabete honetan aterako dira lehiaketara, eta Udalak esandakoaren arabera, urte amaierarako lanean has-teko asmoa daukate. Santa Ana eta Madala inguruneko lanak bost hilabete-ko epealdian burutuko dituzte, baina Olasoko errotondako obrak amaitzeko urtebete inguru beharko dute.

Informazio gehiagorako: www.elgoibarren.net

Ezker Abertzaleko kideek ongi-etorria egin zioten Juan Mari Mendizabali



Plaza Handian Elgoibarko eta eskualdeko lagunak bildu ziren Juan Mari Mendizabali ongi-etorria emateko. 18/98 sumarioan kondenatutako elgoibartarra ekainaren 20an irten zen Bonxeko (Galizia) espetxetik, eta joan zen barixakuan, uztailak 11, egin zioten ongi-etorria. Txalaparta doinuekin hasi zuten ekitaldia, eta ohorezko aureskua dantza egin eta gero, Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kide batek berba egin zien bertaratutakoei. Ekitaldi guztian zehar, Mikel Ibañez izan zuten gogoa. Gainera, Josu Larizen gutun bat ere irakurri zuten. Ondoren, Fernando Bert, kartzelatik irten den azken preso elgoibartarrak amnistiaren giltza eman zion Mendizabali, ahalik eta bizkorren beste preso elgoibartarren bati emateko opatuz. Izan ere, abuztuan aske laga lezakete Arnaldo Otegi, Batasuneko bozeramailea. Juan Marik berak Plaza Handira hurbildu zirenei eskerrak eman, eta presoan alde lan egiteko gonbitea egin zien. Kimetz elkartean egin zuten afariarekin jarraitu zuten ongi-etorriarekin.

Lekua **Altzola**



Zubibai elkarteko kideak haserre agertu dira aste honetan, Euskotreneko ordu-tegien taulan Altzola ez delako agertzen. Trenak zortzi geldialdi egiten ditu egunean Altzolan, eta eurek zerbitzua indartzeko eskatu dute behin eta berriz, baina "egoerak okerrera egin du". Hori dela-eta, bigarren eskutiz bat idatzi diote Iñigo Palomino Euskotreneko zuzendariari, egoera horren gaineko azalpenak eskatuz. Orain dela bi hilabete bilera egiteko eskaera egin zioten elgoibatarriari, baina oraindik ez dute erantzunik jaso.

Zenbakia **%39,7**

Elgoibarko Udalak 2008ko euskararen erabilera neurtzeko ikerketaren emaitzak aurkeztu ditu. Euskara Batzordeak ekainaren lehen astean egindako kaleneurketaren arabera, elgoibartarren %39,57k berba egiten du euskaraz gure herriko kaleetan. Azterketa hau egin ahal izateko, 9.379 elgoibartarren hizkuntza-jokaera neurtu dute. Adinaren arabera, euskara gehien haurrek erabiltzen dute (%52,90k), eta helduek gutxien (%28,56k). Bestalde, jolaslekuak dira euskara gehien erabiltzen den gunea (%53,6). **Informazio gehiago: www.elgoibarren.net**

Irudia **Bruceren zale elgoibartarrak**

Guztira, 40.000 lagun bildu zituen Bruce Springsteenek Anoetako futbol zelaiari martitzenean. Elgoibarren ere ikusmin handia sortu zuen kontzertuak. Sarre-rak erosi eta elkarren berri ahoz aho izan zuten 68 herritarrek Springsteen ikustera joateko autobusa antolatu zuten, eta beste herritar mordo bat euren autoetan joan zirela jakin dugu. Sexu, adin eta estilo diferenteetako jendea, baina denak "The Boss" zaleak. Autobusa hartu aurretik atera genien erretratua.



Hiru neska-mutilek sendotza egingo dute domekan

Datorren domekan, uztailak 20, sendotzako sakramentua hartuko dute Elgoibarko San Bartolome Parrokian, goizeko 11:00etan. Bertan, parrokiako hiru neska-mutilek hartuko dute sendotza sakramentua. Elizkizunean, Juan Maria Uriarte Donostiako gotzaina izango da.

Foru Aldundiak Elgoibartik Eibarrerako errepidea berrituko du

Gipuzkoako Foru Aldundiak bi milioi euro inbertituko ditu Gipuzkoako errepideetan. Bestek beste, N-634 errepidean egingo dituzte berrikuntzak, Elgoibar inguruan. Guztira 2,3 kilometro zaharberrituko dira, Olasoko poligonora sartzeko bidegurutzearen eta Maltzagako biribilgunearen artean. Egitura zaharberritzeko, gaur egungo zoru fresatu eta betun beroko bost zentimetroko geruza zabalduko da. Obra horren aurrekontua 432.290,90 eurokoa da, eta lehia-keta bidez aukeratuko da obrak egingo dituen enpresa. Lanak bukatzeko epea bi hilabetekoa da.

Ezker Batua/Aralar Udaleko hiru zinegotzi liberatzearen kontra azaldu da

Ricardo Garate zinegotziak hartuko du Hirigintza Sailean Ion Zubiaurreren lekua, gehienez ere, datozen hamazortzi hilabeteotan. Zubiaurre bajaran dago. Ezker Batua/Aralar koalizioa ordezkapen horren kontra azaldu da, eta elgoibartarrek hirugarren zinegotzi baten soldata ordaintzea ez dela politikoki zuzena gaineratu dute. Erabaki hori liberatuentzako oso ona dela adierazi dute, baina herritarrentzat oso txarra, eta Udalerako aurrekari arriskutsua izan daitekeela esan dute: "Zer egingo du Udalak hirugarren zinegotziak ere baja hartzen badu?". Ezker Batua/Aralar udal politikari profesionalen aurka dago.

Jose Manuel Esnal elgoibartarra izan da Santana jaietako kartel lehiaketaren irabazlea

Urtero bezala, Santana Jaietako kartel lehiaketa antolatu du Mendaroko Udalak, baina aurten desberdina izan da. Lehen, umeentzako izaten zen lehiaketa, baina aurten irekia izan da. Hala ere, Kultura Sailaren arabera, bi lagunek bakarrik hartu dute parte, eta Jose Manuel Esnal elgoibartarra izan da irabazlea. Dantzarien zapatilak eta fajak irudikatu ditu, Santa Ana elizaren kanpandorrea. Bertara joan eta argazkiak atera zituen lehendabizi, eta, ondoren, arkatzez egin zuen hasierako zirriborroa. Azkenik, ordenagailuan eman zion irudiari kolorea. Elgoibartarrak 300 euroko saria jaso du.

Betidanik izan du gustuko marraztea Jose Manuel Esnalek, eta bere emazteak animatuta, orain dela urte batzuk hasi zen lehiaketetan parte hartzen.

Azkenaldian neurria hartu die lehiaketei, eta hainbat lehiaketa irabazi ditu: azken bi urteotan bere kartelak iragarri du Trinitate Jaietako nagusien danborrada, esate baterako. San Bartolome jaietako kartel lehiaketan, ordea, ez du suerterik izan, eta bigarren postuarekin konformatu behar izan du birritan.



Jose Manuel Esnal

PRESOENGANAKO ELKARTASUN EGUNA BIHAR, UZTAILAK 19

Mendaroko Gazte Asanbladak antolatuta, Presoenganako Elkartasun Eguna izango da bihar, uztailak 19. Santana jaietarako motorrak berotzen hasteko aukera izango da, beraz, bihar Mendaron.

Ekitaldiarekin eguerdi aldean hasiko dira. 14:30ak inguruan, herri bazkaria egingo dute Goñati frontoian. Bertan parte hartzeko interesa duten guztiek Ormola tabernan eman dezaketeko izena edota bestela etorrigureana@gmail.com helbidean. Bazkalostean jolasak egingo dituzte frontoian bertan (oskolbatze erronka eta txapel jaurtiketa), eta iluntzean Julen Zelaieta eta Eneritz Zabaleta bertsolariekin kalejira. Gauean, txosnetara joateko plana egin dute.



Mendarok 25. urteurrena ospatuko du jaietan

Mendaroko herriak 25 urte egingo ditu aurtan, eta hori ospatzeko helburuarekin, Santana jaien hasiera berezia izango da. Asteburu honetan zenbait ekintza egongo diren arren, txupinazoa eta jaien hasiera uztailaren 24an izango da, urtero bezala. Mendaroren 25. urteurrena gogor-

tzeko, orain arte Udalean izan diren zinegotziak eta alkatea izango dira txupinazoan. Horiekin batera, herria sortzeko lanetan aritu zen batzordeko kideak ere, bertan izango dira. Arratsaldeko 18:00etan izango da txupinazoa, eta ondoren, luntxa eskainiko dute udaletxean bertan.



ATZERA BEGIRA

Kontxi Azpiazuk laga digun erretratua, 1958. urte ingurukoa da. Santana jaietan ateratakoa da, Garagartza auzoan. Lagun koadrila hori jaiak girotze lanetan ikusten dugu, bonbo eta guzti. Gogora ditzagun argazkian azaltzen direnak:

Ezkerretik eskumara: Itziar Arrieta, Javier Urrusolo, Jesus Azpiazu, Julian Iriondo (), Pako Arrizabalaga, Atanasio Olazabal, Pepe Goyarzun, Manolo Landa, Joakin Longarte, Juan Jose Urain.



Era guztietako arotz lanak (erreformak, sukaldeak...)

Ezenario
Arotzerixia

653 70 78 37 Mendaro

PAGOERROTA
iturgintza

- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza

Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)
Tel.: 943 75 60 44 - Faxa: 943 75 60 37 - Mugikorra: 659 334 323

PUB

Ondo pasa Santanak!!!

ARRATS

Zelaikoa plaza, 2. MENDARO. Tel: 943 75 50 58

KILI barren

Santana jaiak

Egitaraua

SANTANA JAIK 2008



19 ZAPATUA

PRESOEKIN ELKARTASUN EGUNA

Antolatzailea: Gazte Asanblada.

14:30 Herri bazkaria frontoian.

Apuntatzeko Ormola,

Txirristaka edo

etorrigureana@gmail.com

Ondoren, jolasak frontoian.

Oskolbatze erronka eta txapel jaurtiketa.

Iluntzean, kalejira bertsolariekin

Julen Zelaieta Nafarroatik eta

Eneritz Zabaleta Lapurditik

Gauean, denok txosnetara

19 ZAPATUA

22:30 Rock kontzertua.

- TEMPESTADES

- ETXE

- KEROBIA

24 EGUENA

18:00 Txupinazoa.

25. urteurrena gogoan.

19:00 Salbea.

Azpilgoetako elizan.

Ondoren, kalejira.

Zanpantzarren soinuen laguntzarekin.

23:00 Erromeria.

AKERBELTZ taldea Herriko Enparantzan.

25 BARIKAKUA

12:00 Koadrilen arteko marmitako lehiaketa.

Goñati frontoian.

14:00 Sari banaketa.

Ondoren, bazkaria.

Karaokearekin.

19:00 FADUNTO kale animazioa.

Mendaroko auzoetan. Familia erraldoia, hiru mukizu okerrekin, herria hankaz gora jarri nahian.

22:30 Nagusien danborrada.

Debako musika bandarekin.

24:00 Erromeria.

LISKER taldearekin.

01:30 Mendaroko Play Back lehiaketa.

Jarraian, DJa goiza iritsi arte.

* Egun osoan zehar puzgarriak eta jumpinga herriko enparantzan.

26 ZAPATUA

10:30 Prozesioa.

Txistulariekin Santana ermitara.

11:00 Meza nagusia.

Ondoren, erromeria

Trikitalari eta bertsolariekin.

18:00 Herri kirolak.

Gipuzkoako 2. mailako aizkora eta lokotx-biltze txapelketak.

Goñati pilotalekuan.

20:00 Musika.

LAIOTZ taldea Herriko

Enparantzan.

23:00 Su artifizialak.

23:30 Erromeria.

LAIOTZ taldearekin.

27 DOMEKA

12:00 Alkate txikiaren agurra eta txupinazoa.

12:30 Haurren danborrada.

BETI POZA txarangarekin.

16:00 Haurrentzako jolas eta tailerrak.

Goñati pilotalekuan.

18:00 Sokamutur txikia eta pottokak.

Herriko Enparantzan.

20:00 Umeentzako ikuskizuna.

Haur eta gurasoak animatu parte hartzera.

Herriko Enparantzan.

Bukaeran, kalejira.

Bizi Poza Txarangarekin jaien amaiera.



LANDA

ERRETEGIA

*Jaiak
ondo pasatu !!*



Garagarza, 32 · MENDARO

☎ 943 75 60 28



*Mendaroko Udalak
Santana jai zoriontsuak opa diskisue.*

TXIRRISTAKA TABERNA



ONDO
PASA
JAIXAK!!!

Mila esker, **25 urtez**,
pausoz pauso hazten
laguntzeagatik.

1



2

9



0

8



0

3



8

Gaur, barixakua, BTT zentroa inaugurako dute Mintxetan.

Baduzu mendi bizikletako gune berrian ibilbideren bat egiteko asmorik?



Amaia Fernandez

36 urte, etxekoandrea


Ez dakit, nik aerobika egin ohi dut, eta horrelako zentroak ondo daude. Nork daki, agian animatuko naiz familiarekin bueltaren bat ematen. Dena den, bide lauak nahiago ditut.



Berex Ortiz

33 urte, teknikaria

Bai, mendian ibiltzen naiz bizikletarekin. Interesgarria da, eta Euskadiko hirugarrena omen da. Pasatuko naiz egunotako batean eta informatuko naiz ibilbideen inguruan.



Mikel Chaves

15 urte, ikaslea

Ziur aski. Oso ideia ona da, baina gazteentzako zein prezio jarri dituzten jakin beharko nuke. Frantzia ohitura handiagoa dago, eta bazen garaia hona ere zentro horiek ekartzeko.



Olatz Santamaria

27 urte, etxekoandrea

Ez dut uste, ez naiz mendi bizikletan ibiltzen, kanpora joaten naizenean salbu. Dena den, hobeto informatuko naiz. Herrian afizioa badago. Askok eskertuko dute.

10^{eko}
TXIKIAN



ARANTXA
BOLLAR

Fruitu saltzailea

1. Azken aldian egin diren obretatik, zein gustatu zaizu gehien?

Egia esan, ondo itsusiak dira egiten ari diren etxe berriak. Ematen du arkitekto okerrenak aukeratzen dituztela. Santa Anakoak ere zatarrak dira.

2. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?

Bai, egia da. Zerbaiten aurka joan behar denean orduan bai, baina jendea beti beste norbaitek egiteko zain egoten da, eta ez da gauzak antolatzerara ausartzen.

3. Zein da elgoibartarrik famatuena, zure ustez?

Bereziena Ondartza da, hankautsik ibiltzen dena. Baina famatuena, ez dakit nor izan daitekeen.

4. Aukera nahikoa badago Elgoibarren kirola egiteko?

Nik uste dut ezetz. Jendeak kirol gehiago egiteko ganorazko lekua nahi du, eta beti txanda eske ibili beharra dago edozein lekutara joateko. Instalazioak handitu egin beharko lituzkete.

5. Aukeratu egun bat, lagun bat gure herrira gonbidatzeko...

Txiki Eguna.

6. Ausartzen al zara kultur eskaintzari tentsioa hartzen?

Ez naiz kultur emanaldi askotara joaten, eta BARRENe bidez izaten dut horien berri. Kirol emanaldiak jarraitzen ditut, eskubaloikoak bereziki, baina ez hainbeste kultur jarduerak.

7. Gure herria euskalduna iruditzen zaizu?

Lehen baino gehiago bai, baina kanpotar asko datoz eta askok ez dute ikasten, eta euskarak atzera egiten du kasu horietan.

8. Ahal izango bazenu joango zinateke beste herriren batera bizi izatera?

Ez dut uste, lana hemen dut, eta gustura nago.

9. Behar duzun guztia daukazu herrian?

Nik bai, baina ez dakit jendeak behar duen guztia duen Elgoibarrek. Eskatzen duenak behar duelako eskatuko du.

10. Ipın iezaiozu nota gure herriari, 0tik 10era bitartean...

5. Ez da herri ederra.

Mintxetako tenis pista eta jolas pista martxan daude dagoeneko

Bi padel pista egiteko lanak hasiko dira uda ostean



Mintxetako inguruneak etengabe berritzen ari dira. Gaur, barixakua, mendi bizikletentzat BTT zentroa estreinatu dute eta eguaztenean berriz, Udalak Mintxetako kirol gunean eraiki dituen bi jolas ekipamendu berriak aurkeztu zituen: tenis pista eta hainbat kiroletarako pista. Gainera, uda amaitu eta gero hasiko dira bi padel pista egiteko lanak, tenis pista berraren ondoan.

Eskualdeko lehena

Hainbat kiroletarako pista eskualdeko lehena da. 70.000 euroko kostua eduki du, eta 35.000 eurokoa tenis pis-

tak. Pistaren alokairua aurreko egunean edo egunean bertan egin ahal izango da. Alfredo Etxeberria alkateak, eta Ricardo Garate (EAJ), Eloisa Zubiaurre (EAJ) eta Francisco J. Nuñez (PP) zinegotziek inauguratu zituzten ofizialki guneok, eta gainera momentuan probatzeko aukera izan zuten. Euskadiko tenis txapelkunorde Jonathan Taborcia ere bertaratu zen, izan ere lotura berezia baitu Elgoibarrekin.

Ume koskorra zela aitarekin batera etortzen zen IMHko tenis pistara entrenatzera. Kirol Udalekuetako partaideek adi-adi entzun zituzten Jonathanen gomendio eta azalpenak.

Haundiko jokalariek aurrendenboraldia prestatzen ari dira

Jagoba Arrasate Haundiko entrenatzaileak hasi ditu aurrendenboraldiko prestaketako entrenamenduak. Momentuz, hamazpi jokalariek daude bere esanetara. Iker, Muxi, Tarra, Kerman, Loren, Guinea, Pinilla, Osoro eta Munitis jokalariek beste urte batez jarraituko dute Elgoibarko taldearen kamiseta defendatzen. Zulaika eta Larrea berriz, lehen taldera igo dira. Jorge Lopez ateizana Durangoko taldetik dator, Harritz Garate eta Unai Jauregi Berriatuatik, Guruzeta Eibar-tarrak taldetik. Gainera, Armendariz, eta Iker Arrizabalaga ere batu zaizkie.

EMAITZAK

SIGMAKO PILOTA TXAPELKETA

2. kategoria

Agirrebeña-Salegi **18**
Zubizarreta-Unamunzaga **22**

1. kategoria

Arribillaga-Egaña **22**
Kepa-Lizarralde **16**

Karmel-Xabier **20**

Portu-Aguirrebeña **22**

Finalaurdenak (infantilek), 19:00etan

Uztailak 21

German-Karmel; Zubizarreta-Unamunzaga

Arribillaga-Egaña

Karmel-Xabier

Uztailak 22

Konde-Amesti; Aguirresarobe-Larrañaga

FINALA HILAK 25

Elgoibarko bi taldek jokatuko dute Futbol 7ko txapelketako finalean

Futbol 7ko txapelketako finalean, LMRD1P taldeak Buztangorriak taldearen aurka jokatuko du. Finalerdietan, LMRD1Pek iazko txapelkunari irabazi zion, Kashima Brewers taldeari, 4-2ko emaitzarekin.

Buztangorria taldea, berriz, 2-1 nagusitu zitzaion Plaentxiko Soratinaikos taldeari. Finala bihar, zapatua, jokatuko dute 11:00etan. Ekainaren 7an hasi zen Futbol 7ko txapelketa eskualdeko 17 eta 18 urte bitarteko gazteen artean.



Lehen edizioko (1994) talde txapelketa eta txapelkunordea.

MENDIAN GORA



Ezkerretik eskumara, Iñaki Iraola, Zigor Azkoaga eta Koro Gabiola, ibilbideak zehaztu dituzten Elgoibarko ordezkariak.

Gaurtik aurrera Elgoibarrek BTT zentroa izango du. Euskal Autonomia Erkidegoan mendi bizikletan ibiltzeko hirugarren gunea izango da Debabarrenekoa. Mintxetan kokatu dute harrera gunea, eta helburua turismoa eta natura uzartzea da ingurune paregabe batean. Hamalau ibilbide ditu, zailtasunen arabera mailakatuak.

Andoni Iturbe

Behin eta berriz noraezean galdu-ta ezagutu ditu Iñaki Iraolak mendi bizikletan ibiltzeko ibilbide berriak. Koro Gabiola eta Zigor Azkoagarekin batera, Elgoibarko ordezkaria izan da Debabarreneko BTT zentro berrirako egin diren bileretan. Otsail hasieran egin zuten lehenengo bilera proiektuaren ordezkariekin. Euren lana ibilbideak zehaztea izan da euren eskarmentuaz baliatuta. Asteburuetan mendi bizikleta hartu eta hainbat ibilbide egiten dituzte han eta hemen. Horregatik eurentzat pozgarria da gaurtik aurrera Debabarrenak BTT zentro propioa izatea Elgoibarren.

Abiapuntua Mintxetako harrera lekuan du. Bertan bizikletak alokatu daitezke, duxatu edo bizikletak garbitzeko aukera da-

go. Lehenengo ibilbidearen bitartez San Lorentzo ermitara heldu daiteke eta bertan dagoen jolas gunean atsedena hartu. Ibilbide erraza da, familiarekin egiteko modukoa. Gainontzeko hamairu ibilbideak ez dira hain arinak. Norberaren abileziaren eta sasoiaren arabera izango dira gogorrak edo gogorragoak. “Bide errazak sekula mendi bizikletan ibili gabeko batek egin di-

“Ibilbide gehienek maila altua eskatzen dute, eta sufritzeko prest etorri behar da BTT zentrorra”

tzake”, adierazi du Iñakik. Baina oro har ibilbide exijenteak izango dira. Koloreen arabera mailakatu dute ibilbideen zailtasuna (ikus grafikoa). Hortaz, Debabarreneko BTT zentroak bi ibilbide arin izango ditu; beste bi zailtasun gutxikoak eta gainontzeko hamarrek, exijenteak edo oso exijenteak izango dira. “Sufritzeko prest etorri behar da. Maila altua eskatzen dute”, diote.

Ibilbideak

Aixolako urtegia inguratzen duen ibilbidea atsegina da, maldarik gabea. Aixolako urtegia Ermua inguruan dago eta ibilbideak urtegia inguratzen duen bidexka ia lauari jarraitzen dio.

Larangako Ibilbidea, Mutrikun, haurrekin egitekotan, arreta handia izan behar da zirku-

lazio gutxi duen errepede batetik igarotzean (tokiko errepedea da, baserrien artean igarotzen dena) eta zenbait maldatatik igarotzean, aldapa handiak daude. Flyscharen ibilbidea laburra da, baina paraje ederrez betea dago. Elgoibar eta Deba artekoak Olatzeko gunea bere gain hartzen du, eta ezinbestean ikusi behar den bailara ederretik igaroko dira bisitariak.

Itziar bideak Kostaldeko ikuspegi zoragarriak eskaintzen ditu, eta zenbait zatitan (etengabeko igoera eta jaitsierengatik) ahalegin handia eskatzen du.

Lastur eta Deba bitartekoan, zenbait puntutan kostaldea ikusi ahal izango dute txirindulariek. Bailaratik irteteko bidea, berriz, eremu harritsutik igarotzen da. Ibilbide luzea eta zailtasun handikoa da Mendaroko ibilbidea. Bere edertasunagatik eta, kirolari dago-kionez, oso erakargarria da. Done Petriren ermitatik gora doa, San Migel gainetik gora, Arnoatera heldu arte. Puntu horretan Mendaroraino doan jaitsiera luzea hasten da eta, jaitsiera amaitu ondoren, berriro ere ahalegin handia eskatzen duen igoera aurkituko dute txirindulariek, Otarreko goraguneraino eta Azkarateko porturaino; geroago berriro Elgoi-

barrera jaitsi beharko dute. Mota guztietako eremuetatik igarotzen da ibilbidea.

Mutrikuko bira zailtasun handikoa bada ere, bere erakargarritasuna dela-eta merezi duen ibilbidea da. Ibilbideak Arno mendia inguratzen du eta, geroago, ipar-ekialdera jarraitzen du, Olatzeko bailararen gainetik igaroz, Tontorramendira heldu arte.

Mintxetako harrera gunetik, Arrate, Placentzia edo Eibar zeharkatzen duen ibilbidea espezialistentzako da. Baita Arnoate eta Otarrekoa ere.

Natura

Ingurugiroan ahalik eta eragin txikiena izango dute ibilbideok, besteak beste BTT zentroen helburua turismoa bultzatu eta tokiko garapena eragitea delako, betiere parajeak errespetatuz. "Inguruneak politak dira, baina ez dauka bidegorri batekin zerikusirik", dio Iñakik.

Frantzia sortu zen 1991. urtean BTT zentroen estrategia. Bertan dagoeneko 46.000 kilometroetako ibilbideak daude. "Alpeetan edozein herritan dago BTT zentroren bat", gogoratzen dute Korok eta Iñakik, mendi bizikletan paseotxo bat eman aurretik.

KARAKATE

Geotecheko teknikarien arabera, BTT zentro honen ibilbiderik enblematikoena da. Gailurren eta BTT zaleek derrigorrez egin beharreko ibilbidea da, mendiko paisaia duten ibilbideen artean nagusia denez.

SALLOBENTE

Elgoibar inguruan igarotzen den ibilbidea da. Zati baten zehar, bailararen berezitasunak azaltzen dituzten oholak aurki daitezke. Ibilbide amaieran arretaz ibili beharko dute txirindulariek, trialeko azken jaitsierak zailtasun tekniko handiak baititu.



IBILBIDEA	IZENA	METROAK	HASIERA	PLATUTAKO DESNIBEL POSITBOA	DENBORA
1	MINTXETA	6740,85	MINTXETA	216,1	50 min
2	AIXOLA	4745,4	AIXOLAKO URTEGIA	185,1	30 min
3	LARANGA	6366,03	LARANGA	367,3	50 min
4	FLYSCH	3670,36	ITXASPE	205	30 min
5	ELGOIBAR-DEBA	29049,25	DEBA (GELTOKIA)	1432,8	3 ordu eta erdi
6	ITZIAR	19744,89	ITZIAR, ITSASPE, ELORRIAGA	1013,8	2 ordu eta erdi
7	KARAKATE	24981,47	MINTXETA	1365,4	2 ordu eta erdi
8	LASTUR-DEBA	19105,91	DEBA, ITZIAR, LASTUR	992,9	2 ordu
9	SALLOBENTE	12356,13	MINTXETA	673,9	1 ordu eta erdi
10	MENDARO	43369,11	MINTXETA, MENDARO	2333,8	4 ordu eta erdi
11	MUTRIKU-BIRA	23816,75	MUTRIKU	1542,4	3 ordu
12	ARRATE	34774,59	MINTXETA, ARRATE, SORALUZE, EIBAR	2144,1	4 ordu
13	ARNOATE-OTARRE	37027,62	MENDARO, DEBA, LASTUR	2228,3	4 ordu
14	DEBABARREN A-BIRA	92863,82	DEBA, ARRATE, EIBAR, SORALUZE, MINTXETA, LASTUR, ELORRIAGA, ZUMAIA, ITXASPE, ITZIAR	5422,9	11 ordu
GUZTIRA		358612,18			

Ibilbide bakoitzaren ezaugarriak.

Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdiak Turkiako eta Irlandako dantzariak bilduko ditu uztailaren 24an

Haritz dantzari taldeak Nafarroako dantzak eskainiko ditu aurten

Turkiako eta Irlandako dantza erakustaldiak izango dira Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdiko gonbidatuak. Turkiako Gehem eta Irlandako Absolutely Legless konpainiek egingo dute erakustaldia uztailaren 24an Olaizaga kiroldegian, Haritz Euskal Dantzari Taldearekin batera, 22:30etatik aurrera.

Ghem ikasle taldea 1965. urtean sortu zuten, eta 16 urtetik 25 urte bitarteko sei musikaririk eta 32 dantzari osatzen dute. Euren errepertorioan Turkiako hainbat eskualdetako jantzi eta dantzak erakutsi ohi dituzte. Dantzari erakargarrienetako bat biretan oinarritutako *dervishes* izenekoa da. Hainbat jaialditan parte hartu dute dagoeneko: Kanadan, Txinan, Taiwanen eta Europan.

Ospea mundu guztian zehar

Absolutely Legless Irlandako dantza taldeak ospea lortu du nazioartean, bereziki emanaldi berriztaile eta erakargarriek esker. Oin-joko gogor eta leunaren tradizioetan inspiratuta, dantza originalak eta bizkorrak egiten dituzte. Txirulak eta gitarra erabiltzen dute, nahiz eta ukitu tradizionalako



moldaketa berriak ere sartzen dituzten. Bestalde, Haritz Euskal Dantzari Taldeak, Nafarroa Garaiko eta Behereko dantzak eskainiko ditu aurten. Lehenengo zatian, Auritzeko *Ingurutxo*a ikusi ahal izango da, inguru hartako hainbestetako bat, izena koreografia biribilagatik hartzen duena. *Pañolo-dantza*, *Andredantzak*, *Jota*, *Ingurudantza* eta *Ezkila-fraile* zatiek osatzen dute *Ingurutxo*a.

Bigarren zatian, berriz, Nafarroa Behereko Inauteria eskainiko du. Bere jatorrian Pazko-domekan antzezten zuten. Hainbat dantza motek osatzen dute, hala nola, *Martxa*, *Ahuntza* eta *Segidak*, 1. 2. *kontra-dantza*, *Sorginak*, *Euskaldunak*, *Kadrille* eta *Dantza Luze*... Haritzek, dantza horiek Donostiako Argia, Portugaleteko Elai-Alai eta Galdakaoko Andra Mari taldeen laguntza estimagarriarekin ikasi zituen.



Erlaxaziozko jogurt tratamendua

Hasi ezazu iraila modu ezin hobean!

Uda ondorengo jogurt tratamendua orain eskatuz gero **12 €-ko deskontua** lortuko duzu. Pasa zaitezte deskontu-txartelaren bila!!!

Gogoratul abuztuaren 14ra arte hemen izango gaituzul

Judith
EDERGINTZA


Erosatze Kalea, 19 - Tel.: 943742920 / 447743116

Baltzola anaien bost pieza bildu dituzte “Faborez 02” lanean

Diskorik kaleratu ez duten lau bikotek parte hartu dute

Baltzola anaien sueltoko eta lotutako bost pieza entzun daitezke *Faborez 02* diskoan. Lau bikote bildu ditu soinu eta pandero hutsez, eta bikote bakoitzak bost pieza grabatu ditu.

Dantzarako proposa den erreperatorio honetan, Elgoibarko Baltzola anaiak trikitixa, porrusalda, fandangoa, fox-a eta *Nire Manolo* pasodoblea jo dituzte. Alegia, sueltoko eta lotutako piezak tartekatu dituzte. Iaz Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak *Faborez* izeneko disko bilduma kaleratu zuten, sasoi bateko erromerietan, neska dantzara faborez ateratzea ohiko eskaera baitzen. Eskakizun horri jarraipena eman diote *Faborez 02* lanarekin, eta horretarako diskorik plazaratu gabeko gazteekin lan egin dute, belau-naldi berrietako jotzaile gazteek eta erreperatorio tradizionalen artean bat eginik.



Doinuak entzuteko:
www.elgoiBARREN.net

Auto klasikoen erakusketa datorren urtean ere egiteko asmoa dute antolatzaileek



Auto Klasikoen Lehen Erakusketan arrakastaren ondoren, datorren urtean ere ekimena errepikatzeke asmoa dute Lerun jatetxeke lagunek, baina ekainera aurreratu-ta. 46 ibilgailuk parte hartu zuten, eta hauek saritu zituzten: Autorik bereziena: Chrysler 77 kamioneta, 1938 (jabea: Antonio Lazpiur); autorik dotoreena: Opel P6, 1933 (ja-

bea: Lucio Iraeta); autorik zaharrena: Citroen 5 CV, 1924an eresia (jabea: Javier Alava); kirol-auto onena: Jaguar XK 150, 1960 (jabea: Felix Lascaray); ondoen zaharbertitua: Ford A, 1927 (jabea: Jose Antonio Mena); Elgoibarrera iristeko distantzia luzeena egin duena: Citroen 15 Six, 1951, Castro Urdiale-setik (80 kilometro).

Danbaka musika lehiaketa

Danbakak, musika taldeei bul-tzada emateko lehiaketak, bere es-parrua handitu du. Debagoienaz gain, Debarrena eta Durangalde-ra zabaldu dute Goiena konunikazio taldeak eta Espaloia Kafe Antzokiak antolatzen duten ekimena. Aurten 24 taldek izango dute zuzenean jo-tzeko aukera eta talde onenak Shot! grabazio estudioan diskoa grabatu eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxe-arekin kalean izango du. Horretara-ko hiru abesti original bidaliko be-harko dituzte. Argibide gehiago, www.danbaka.com webgunean.



Ehiza-hegaztien erakustaldia

Hegazti harrapakarien (hontz handia, belatz handia, arranoak, hontz zuria, ipar-belatza...) erakus-taldia domeka honetarako antolatu du Zubibai elkarteak. Hegaztiak iku-tzeko, hartzeko eta airera jauritzeko aukera izango dute bisitariak eguer-ditik aurrera Altolokako frontoian.

Sargoateko erromeria

Datorren barixakuan Sargoateko erromeria ospatuko dute. 11.00etan, meza nagusiarekin hasiko dute jai egitaraua. Ordu bete geroago, salda eta txorizoa banatuko dute, eta 12:30etan, bertsolariak eta trikitilariak arituko dira: German Meabebasterretxea, Xabier Arrizabalaga eta Juan Maria Narbaiza, Baltzola anaien trikitixa doinuekin.

LANA

ESKAERA

- Mutila, banaketa lanak, tailer batean piezak edo beste edozein lan egiteko prest. ☎ **638 344 377**
- TI Geko soldadorea, lan egiteko prest. ☎ **616 207 343**
- Gizonezkoa, edozer lan egiteko prest. Elektrizista jardun izan dut. ☎ **647 175 844**
- Neska, garbiketa lanak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **671 834 228**
- Emakumezkoa, jostun lanak, garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **688 682 398**
- Emakumezkoa, nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo bulegoak garbitzeko prest. ☎ **943 743 251**
- Gizonezkoa, baserri batean artzain lan egiteko prest. ☎ **671 834 228**
- Emakumezkoa, nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia dut. ☎ **650 034 445**
- Emakumea, garbiketa lanak (taberretan, etxebizitzetan, tailerretan...) egiteko prest. ☎ **699 813 826**
- Neska, nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **686 265 293**
- Lagun arduratsua, abuztuan umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **943 74 33 42**
- Mutila, lan egiteko prest. ☎ **648 202 985**
- Emakumea, jatetxean eta tabernan esperientziaduna, interna moduan lan egiteko prest. ☎ **689 161 241**
- Neska, umeak zaintzeko prest. ☎ **647 085 427**
- Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko edo tabernak garbitzeko prest. ☎ **663 569 263** ☎ **676 853 028**
- Neska sukaldari laguntzaile izateko, nagusiak zaintzeko edo etxeak garbitzeko prest. ☎ **678 939 382**
- Gizonezko arduratsua, garbiketa lanak orduka edo publizitatea banatzeko prest. ☎ **622 625 812**

- Mutila, edozer lan egiteko prest. ☎ **638 494 501**
- Emakumezko arduratsua, garbiketa lanak egiteko edo nagusiak orduka zaintzeko prest. ☎ **622 634 860**
- Emakumea, lanerako prest: umeak edo nagusiak zaindu, etxeko lanak egin... Eskarmentukoa eta autoa. ☎ **606 642 284**
- LH eta DBHko partikularrak emateko prest, euskaraz zein gaztelaniaz. Uztailan goizez. ☎ **688 664 727**

ESKAINAZA

- Deban, bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko lagun bat behar dugu. ☎ **615 716 538**
- Eskarmentua duen sukaldaria behar da. ☎ **943 74 45 78**
- Eskarmentua duen zerbitzaria behar da. ☎ **943 74 45 78**
- Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko eta etxeko lanetarako, astean hiru egun lan egiteko. Gizarte segurantzarekin. Autoa izatea beharrezkoa da. ☎ **651 707 671**
- Zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko, uztail eta abuztuan. ☎ **662 327 003**
- Elkadura enpresa batek aholkulari-komertzialak behar ditu. Tratu pertsonalerako gaitasuna eta pertsona ekimentsua izatea eskatzen da. ☎ **649 61 31 34 (Mertxe)**
- Zerbitzaria behar da jardunaldi erdirako. Eskarmentua eskatzen da. ☎ **652 746 246**
- Zerbitzaria behar da jatetxean lan egiteko. ☎ **943 12 12 62**
- Neska behar da gortinak prestatzeko. Esperientzia eskatzen da. ☎ **943 74 44 57**
- Bezeroarentzako arreta-zerbitzua ematen duen administraria behar da. Informatikako ezagutzak beharrezkoak dira. Irailetik aurrera, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 19:00etara. ☎ **943 744 221**

- Zerbitzaria behar da Txarriduna hotelerako. Kontratua jardunaldi osorako. Esperientzia beharrezkoa. ☎ **943 74 87 78**
- Neska edo emakumezko euskalduna behar da irailetik aurrera orduka umea zaintzeko. ☎ **669 339 529**

ETXEBIZITZA

- Pisia alokairuan, bi logela. Errosario kalean. ☎ **606 707 468**
- Donostiako Gros auzoan etxebizitza alokairuan. 2+2 lagunentzako, uztailako bigarren hamabostaldirako. ☎ **943 27 34 72 / 607 521 028**

MOTORRA

- Opel Astra Caravana DTI salgai. 100 zaldi eta aire egokitua. ☎ **686 975 245**
- Golf-a salgai. 2002. urtekoa. Highline. 115 zaldi. 6. martxa. Estrak. 10.300 euro. 90.000 km². ☎ **653 735 849**

BESTELAKOAK

- Txakurkumeak, hilabete erdikoak, oparitzen dira. Arditxakur eta arratoi txakur nahasketa dira. ☎ **619 827 112**
- Ileapaindegia alokairuan Eibarren. Guztiz hornitua. ☎ **679 425 467**
- Egun batzuetarako muletak edo gurpildun aulkia behar duzu? Nik alokatuko dizut diru gutxigatik. ☎ **627 104 915**
- Garbigailua salgai. Aspes markakoa. Hilabete bat du. 150 euroren truke. ☎ **671 956 677**
- San Frantzisko kalean urre kolorezko erlojua galdu da uztailaren 1ean. ☎ **943 74 31 95**
- Gortinak, altzariak, alfonbrak, oherako izarak eta elektrogailuak behar dira. ☎ **676 444 171**
- Rover kotxe markako giltzak galdu dira. ☎ **626 346 135**



BEKAK
GOI MAILAKO IKASKETAK
Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Unibertsitateko ikasketak eta Eusko Jaurlaritzaren Goi Mailako beste ikasketa batzuk egiteko bekak. Epea: urriak 17 (epe orokorra).

IKASTAROAK
LANGABETUAK
Markola ikastetxea. Markola ikastetxeko lantegi eskolako gazte langabeentzako ikastaroak. Epea: irailak 15.

LANA
BAKE EPAILEA
Zestoako Udala. Zestoako Udalerako bake epaile titular eta ordezko bat izateko eskabideak aurkezteko epea zabalik. Epea: uztailak 18.

PEDAGOGOIA
Nafarroako Gobernua. Administrazio Publikoaren Nafarroako Institutua. Foru Komunitateko Administrazioan eta bere erakunde autonomiadunetan Pedagogo lanpostu bat betetzeko oposiziorako deialdia. Epea: abuztuak 4.

ELGOIBARKO GAZTE
INFORMAZIO GUNEA
Kultur Etxean. Bigarren solairuan. e-posta: gib@elgoibar.org ☎ **943 74 14 61**

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:
11:00etatik 13:00etara
Astelehenean ostiral arratsaldetan:
16:00etatik 19:00etara.

MODULOAK

Lana / Bestelakoak	Etxebizitza/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 5 euro	Astebete : 10 euro
2 aste : 8 euro	2 aste : 17 euro
3 aste : 10 euro	3 aste : 25 euro

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARRENEN** eta astero barren.iragarkilaburrak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04



- Zorionak, **June**, gaur, "bi" egingo dituzulako. Aita, ama eta familia guztia- ren partez.
- Zorionak, **Mikel**, hamaika urte egin dituzulako. Etxeko eta bereziki Aritzen partez. Muxu handi bat.
- Zorionak **pitdn** bi urte egingo dituzulako. Gurasoen, eta anaia Landerren partez.



• Zorionak, **erregina**, zure bederatzigarren urtebetetzean. Ondo pasa familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Macarena**, hila- ren 28an lau urte egingo dituzulako. Gurasoen partez, muxu asko.



• Zorionak, **Lorena**, hama- bi muxu handi familiaren eta bereziki zure ahizparen partez.



• Zorionak, **Andoni**, zure laugarren urtebetetzean. Ondo pasa familiaren eta bereziki gurasoen partez.




• Zorionak, **Nerea**, hila- ren 29an hiru urte egingo dituzulako. Familiaren eta be- reziki Anderren partez.



• Zorionak, **Iraitz**, hamabi urte egingo dituzulako. Egun ona pasa zure fami- liaren partez.



• Zorionak, Upai-zahar- ko printzesa **Maddiri**, lau urte handi egingo dituzu- lako. Familiaren partez.



• Zorionak, **Maria**, etzi ur- tetxo bat egingo duzula- ko. Muxu handi bat gura- soen partez.



• Zorionak, **Inar**, Mendaro eta Elgoibarko familiaren partez.




• Zorionak, **printzesatxo**, familiaren eta berezi aitita - amama eta Sofia ahizpa- ren partez.



• Zorionak, **Intza**, uztaila- ren 30 ean urtetxo bat egingo duzulako. Familiaren eta bereziki Naiaren partez.




• Zorionak, **Markel**. Uztaila- ren 26an urtetxo bat egin- go duzulako. Patxo handi- bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Pello**, zure le- henengo kandelatxua emendau dozu eta. Patxo haundia familixian partez.



• Zorionak, **Asier** eta **Iria**, 11 eta 2 urte egin dituzuelako hurrenez hurren. Markos eta familiaren partez.



• Zorionak, **Ane**, neska handi! Etxekoan partez.



• Zorionak, **Haizea** eta **Urtzi**, bi urte handi egingo dituzue- lako uztaila- ren 29an, eta denok batera pastel haundi bat jango dugu. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Ane eta Jone**, lau urte egingo dituzuelako. Etxeko guztion partez, ondo pasa eta muxu handi ba- na.



• Zorionak, **Josu eta PabI**, uztaila- ren 20 eta 22an urte- ak egingo dituzuelako. Familiaren partez.



• Zorionak, **aitita eta amama**, 45 urte elkarrekin! Muxu asko familia osoaren partez.



• Zorionak, **Jose eta Angelita**, zuen Urrezko Eztaietan. Ondo ospatu eta besarkada bat antzinako lagunen partez.



• A ze sorpresa, **gallego ta portugesa**. Bihar dugu me- za, urte askotarako promesa. Raketxe. Muxu handi ba- na ere zuen lagunen partetik.



• Zorionak, gure **bi piboteek** datorren astelehenean ur- teak betetzen dituztelako.

OKINDEGIAK

UZTAILA

20 domeka **IBARRENEA**
 25 barixakua **BOLINTXO**
 27 domeka **DOÑA MERCEDES**
 31 eguena **EIZAGIRRE**

ABUZTUA

3 domeka **FOTERO**
 10 domeka **DOÑA MERCEDES**
 15 barixakua **FOTERO**
 17 domeka **IBARRENEA**
 24 domeka **BOLINTXO**
 31 domeka **EIZAGIRRE**

IRAILA

7 domeka **IBARRENEA**

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
 Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
 Garagarza (MENDARO)
 Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
 Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBAREN.neten



«Speed racer»

18, barixakua: 22:30

«Onnovalen autobusa»

19, zapatua: 22:30

«Srehk tercero»

25, barixakua: 22:30

«Las hermanas Bolena»

26, zapatua: 22:30

«Llamada perdida»

30, eguaztena: 22:30

«El laberinto del fauno»

31, eguena: 22:30

«Sweeney Tood»

1, barixakua: 22:30

«Los Reyes del Artico»

2, zapatua: 22:30



24 eguena

22:30 Nazioarteko Folklore
jaialdia

Haritz Dantza taldearekin
 batera, Irlanda eta Turkiako
 dantzak ikusteko aukera
 izango da. Olaizaga
 kiroldegian.

25 barixakua

11:00 Sargoateko
erromeria

Meza, salda eta txorizo
 dastaketa eta bertsolari eta
 trikitilarien saioa izango dira.



31 eguena

12:00 Hirigintza erakusketa

Hirigintza Sailak egingo dituen
 hiru obrari buruzko erakusketa
 ikusteko azken eguna.
 Eguerdian eta arratsaldean
 bisitatu ahal izango da.



20 domeka

12:00 Ehiza hegaztien
ikuskizuna

Zubibai elkarteak antolatuta,
 ehizako hegaztien erakustal-
 dia izango da Altolako fron-
 toian.

FARMAZIAK

UZTAILA

18 Yudego
 19 Etxeberria (Errosario)
 (*Goizez Zabaleta)
 20 Zabaleta
 21 Etxeberria (Errosario)
 22 Ibañez
 23 Yudego
 24 Etxeberria (Errosario)
 25 Yudego
 26 Etxeberria (Errosario)
 27 Etxeberria (Errosario)
 28 Fernandez
 29 Etxeberria (Errosario)
 30 Zabaleta
 31 Zabaleta

ABUZTUA

1 Etxeberria (Santa Ana)
 2 Etxeberria (Santa Ana)
 (*Goizez Fernandez)

3 Fernandez
 4 Yudego
 5 Zabaleta
 6 Etxeberria (Santa Ana)
 7 Fernandez
 8 Yudego
 9 Etxeberria (Santa Ana)
 10 Etxeberria (Santa Ana)
 11 Fernandez
 12 Yudego
 13 Zabaleta
 14 Etxeberria (Santa Ana)
 15 Ibañez
 16 Garitaonandia
 17 Garitaonandia
 18 Etxeberria (Santa Ana)
 19 Ibañez
 20 Garitaonandia
 21 Garitaonandia
 22 Etxeberria (Santa Ana)

23 Garitaonandia
 (*Goizez Ibañez)
 24 Ibañez
 25 Zabaleta
 26 Etxeberria (Santa Ana)
 27 Fernandez
 28 Garitaonandia
 29 Ibañez
 30 Etxeberria (Santa Ana)
 31 Etxeberria (Santa Ana)

IRAILA

1 Ibañez
 2 Garitaonandia
 3 Etxeberria (Santa Ana)
 4 Fernandez
 5 Garitaonandia
 6 Etxeberria (Errosario)
 (*Goizez Zabaleta)
 7 Zabaleta

ABUZTUAK 3, SANTUMOTZ EGUNA,

11:00 Meza.

Ondoren, luntxa: sagardoa, txakolina eta txorizoa banatuko dira.

Lasa II. Eta Lutxurdio trikitilariak arituko dira giroa alaitzen.

12:30 Herri kirolak.

LAGUN ARTEA taldekoek antolatuta.

Ondoren, bertso saioa.

Peñagarikano eta Mendizabal bertsolariak.

14:30 Bazkaria Aubixa baserrian.

LASA II. eta LUTXURDIO trikitilariak alaituta.



ERMUARAN- SALLOBENTEKO JAIK

ABUZTUAK 8, BARIXAKUA

19:30 Kanpai jotzea eta txapliguekin jaien hasiera

Ondoren, errosarioa eta meza.

Auzoko hildakoen omenez.

Jarraian, makailau jana.

Auzoko aitita-amamei eskainita, bereziki, Peñagarikano eta Uxue Alberdi bertsolariekin.

Ondoren, erromeria.

Larreategi anaiak.

ABUZTUAK 9, ZAPATUA

17:00 Haurrentzako jolasak

Ondoren, Kidam magoaren saioa

Gero, zezen txikiak eta poniak.

Ondoren, txokolate jana.

20:00 Emakumeen bolo txapelketa

23:00 Erromeria.

Astiazaran anaiak, Juan Mari Beltran eta Leire.

Ondoren, bolo saioak.

ABUZTUAK 10, DOMEKA

SAN LORENTOZ EGUNA

10:30 Meza Nagusia

Ondoren, aureskua.

HARITZ DANTZA TALDEA.

Ondoren, salda eta txorizoa.

12:30 Pilota partidua.

14:00 Bazkari herrikoa.

Baltzola anaiak trikitilariekin.

18:00 Herri kirolak.

LAGUN ARTEA taldea.

22:30 Bolo saioak.

23:00 Erromeria.

BALTZOLA anaiak.

AZKUE * SAN ROKE AUZOKO JAIK

ABUZTUAK 15, BARIXAKUA

SAN ROKE BEZPERA

17:00 Jaien hasiera.

Kanpai jotzea, txapliguak eta txupinazoa.

20:00 Errosario santua.

20:30 Bertso afaria.

Uxue Alberdi eta Arkaitz Estiballes bertsolariekin. Tarteka, Ansorregi eta Larrañagaren saioak.

ABUZTUAK 16, ZAPATUA

SAN ROKE EGUNA

8:00 Txapliguak eta txupinazoa.

11:00 Meza Nagusia

San Rokeko elizan.

Jarraian, HARITZ EUSKAL DANTZA taldearen saioa.

Ondoren, asto proba erakusketa.

17:30 Umeentzako jolasak eta sorpresa.

Ondoren, zezentxo eta poniak.

22:30 Erromeria.

Izer, Alabier, Aitziber eta Litxurdiosek alaituta.

00:00 Bolo txapelketa.

Sariak:

1. 90 euro, garaikurra eta txapela.
2. 60 euro
3. 50 euro
4. 30 euro
5. Bi cava botila

ABUZTUAK 17, DOMEKA

SAN ROKE TXIKI EGUNA

8:00 Txapliguak eta txupinazoa.

11:00 Bailarako hildakoen aldeko meza.

13:00 Bertsolariak.

Zeberio eta Mikel Mendizabal. Tarteka, Elustondo anaiak.

14:00 Auzo bazkaria.

Elustondo anaiek alaituta.

18:00 Herri kirolak.

LAGUN ARTEA taldea.

Ondoren, zezentxoak eta poniak.

22:30 Erromeria.

Elustondo anaiak

Jarraian, bolo jokoak.

01:00 Zozketa.

1. Janariz eta edariz beteriko karretila eta DVDa
2. Kafetera bat



Gure berbak

Udako esaera batzuk, Gotzon Garatek bilduak

Berriki BARRENEk gehigarri interes-garri batekin omendu daban Gotzon Garate ekarri nahi dot gaurko honetan hizpidera, bide batez, nik ere omenaldi txiki bat egin nahixan haren lan izugarri-xari. Beste askotan bezela, gaur haren lan batera jo dot, Elgoibar inguruko eta uda inguruko esaera zaharrak berreskuratzeke, gure arbasuen euskeratik gehixago ikasi ahal izateke. Hona *Atsotitzak* liburuko adibide batzuk:

- *San Juan, jan-edanak jua.*
- *Gaur da San Juan, bixar "juan zan".*
- *San Juan, nekez etorri, ta azkar jua.*
- *Egunik luzena, San Juanena.*
- *Erramuetan kuku, San Pedruetan mutu: (kukua erramu igande inguruan hasten da jotzen, eta San Pedruetan isiltzen).*
- *Andramari martixan kuku, eta San Pedruetan mutu: (goikuaren esanahi bera).*
- *San Rokiak ezker, lurra beltz: (eurixa eta intzarekin, lurra busti; gaua, berriz, luzatu).*
- *San Bartolomiak ezker, eulixak ipurdiz gora: (hotza hasten delako, hiltzen hasten dira).*
- *San Bartolomiak ezker, muiño txikiak itzal haundixa: eguzkixa apalago dagualako.*
- *San Bartolomiak ezker, muñondoa beltz.*
- *Udia, bera jakia ta gonía: (eguraldi berua bera da jantzixa).*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1985

Jose Luis Arana "Tatik" laga digu aste honetako erretratu zaharra. 1985. urtean ateratako erretratua da, San Pedro bailarako Arraitza baserrian. Argazkien agertzen diren gizon horiek koadrila berekoak dira gehienak, eta asko Biardana elkartekeo bazkideak. San Fermin bezpera egunean elkartu ziren bazkaria egiteko, eta argazki ederra atera zuten. Gogora ditzagun zein diren erretratuan azaltzen direnak:

Goian, ezkerretik eskumara: Jose Mari Rivero (†) (bizkarrez, ez zion denborarik eman erretratuan jartzeko), Jose Maria Osoro "Irazabaleta", Luziano Ezenarro (†), Jose Arrieta, Sabin Arriola (†), Karmelo Iriondo, Miguel Sanchez (†), Isidoro Zubiaurre (†).

Behean: Adolfo Arana (†), Rafael Rodriguez, Jose Mari Lizundia (†), Jose Zubiaurre "Balle" eta Jose Zuazubizkar.



PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xizilón, 2 - 3. solairu 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

CORDON VILARCAHO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lizaketa: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura ekologikoa

San Roke, 7 behean
Pai. Glaso - Glasape kalea, 10 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 570

GRUPO
TOLAKO

Sargoateko erromeria

UZTAILAK 25, OSTIRALA



EGITASMOA

11:00 Meza

12:00 Salda eta txorizoa

12:30 Bertsolariak eta trikitilariak.

- Bertsolariak: German Meabebasterretxea,
Xabier Arrizabalaga Ziarda eta Juan Mari
Narbaiza.

- Trikitilariak: Baltzola anaiak.

14:00 Erromeriaren amaiera.



ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XXI. FOLKLORE JAIALDIA



Irlanda



Turkia



Euskal Herria

Uztailaren 24an, osteguna, 22:30ean - Olaizaga Kiroldegian



Haritz
Euskal Danzari Taldea



Elgoibarko Udala



Gipuzkoako
Foru Aldardoa



SAREA

HILEKO AZKEN LARUNBATEKO FERIA

UZTAILAREN 26AN

KONTSUMITU BASERRIKO PRODUKTUAK

- ✻ Ganadu feria
- ✻ Trikitilariak
- ✻ Herri kirolak
- ✻ ...



Antolatzaileak:
ELGOIBARKO UDALA
DEBEMEN
LAGUN ARTEA